

# Patxi Katalana, banderillerua



**“PATXI PLAZA”, “PATXI TABERNA”...  
BAIÑA, ZEIN IZAN ZAN PATXI? GALDERA  
HORREN ATZETIK BETI: “TABERNAN PIN-  
TXUAK PEZETARA SALTZEN ZITXUANA”.  
HURRETIK EZAGUTU EBENENA JO DOGU  
HORTIK GAIÑERAKUAK JAKITEKO.**

**F**rancisco Zuazua Axpe Eibarren jaixua zan, 1921aren otsaillaren 15ian ez baiña, askok uste daben moduan Katalangua basarrixan, kale-kalian baiño. Gaitxizenaren nundik norakuak bere

ama Gumersindak, alargunduta, gerra denporan etxian apopillo lez katalan bat euki ebanekua dia. Ermuko Espilla basarrira ezkondu zan, Eulalia Bergaretxerekin; Mari Tere alaba euki eta gitxira andria hil jakon. Alar-

gunduta, Irene Zarragarekin ezkondu zan eta urte batzutarra Javi semea jaixo zan. Ordurako errenombre haundikuak ziran bera eta bere tabernia, Pedromarianeko etxe azpizian. Sasoi baten Eibarko Orbeanian biharra eñ eban akabatzaile, pulidore moduan. Trenian edo oiñazian, prakiaren atzeko poltsikuan periodikua sartuta juaten zan, harutzian edo honutzian gainbegiradatxo bat emoteko. Gustau eitxen jakon danakin ondo enterauta egotia eta jakitzen eban noz eta zelan eñ berba. Tabernako barruko sukaldia, hamaikatxo tertulixa eta eztabaida entzundakua da. Elkartasun erakustaille, “Artarrai” mendi taldea lokal barik geratu zanian, taberna osteko gelan materixala gordetzeko armarixo bat laga zotsien mosutruk. Komunizatatzat ekan bere burua eta gizartiaren gorabeheren gaiñeko ikuspuntu zabala erakusten eban. Kobratzeko orduan zorrotza bazan be, lagunekin eskuzabal jokatzen eban eta premiña ordua etorri ezkeru bateron bati, trunkil asko sartuko eban eskua patrikara.

## Pintxuak pezetan

Bazkalostian ez eban partakaten lagunen arteko karta partidatxua; bostak aldera baiña txakurra etorten jakon ondora eta muzturrakin hankak igurtzi eta igurtzi ekitzen zotsan harik eta pasiaran eruaten eban arte. S.Pelaxori bueltia emon eta

mostradore ostera barriro.

Umore oneko beti, bezerixa haundixa eken; han beste kafe konpleto, iñun bez Ermuan. “Farias” txokorraren krisis sasoiñan, harenian ez eben faltarik igarri. Pintxuak be gorde eitxen zitxuan: bi edo hirutik gora ezin zenduzan jan, altua emoten zotsun “fulano ez dok etorri ondiñok taillarretik eta hik nahikua jan ditxuk”. Pezetiorri eusten urtiak emon zitxuan, etxiaren sinbolo eñ arte. Baiña berandako estratejia komertzial bat baiño gehixao zan: taillarrian goizetik eta gabera lau perro etartzeko biharrian euanari ezin jakon pezeta batetik gora kobrau eta kitxo. Filosofia eta justizia kontu bat zan.

Zezenzale amorratua zan; Eibarko S.Juanetan eta Bilboko Aste Nagusixan ez eban kale eitxen. Athletixa gero. Tabernarixa izateko ez zan saltsa ipintzaile eta drogosua, bezeruak ez zitxuan futbolaren diskusiñuagaitxik erakarten. Oiñ, Athletixa finalen batera ailegatzen bazan, jokatzen eban lekuan jokatzen ebala, bertan izango zan. Ermuko lehenengo telebisiñua eurenara etorri zan eta telefonuak be 170000 zenbakixa dakar.

Agil euan eta perretxiko eta karakol sasoiñan baztarrak astintzen ibiltzen zan. Gazterik hil zan, 60 urte bete barri zitxuala, 1981eko abuztuan. Banderillen prezixua orduantxe igo eben.

Estibalitz González

 **BAR  
GERALEKU**


**Bost'erdietatik zabalik.**  
San Inazio, 5. ☎ 17 00 32

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak, telebistak,  
bideoak, musika,  
aparatoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

 **OKINDEGIA**  
**Ignacio Peña**

Okindegiko ☎ : 17 01 69  
Etxeko ☎ : 17 14 55

**Goienkalea, 12 - behea**

**ILEAPAINDEGIA**

*Izaskun*

Goienkale, 9 (Plaza San Martín)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**